



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2018/03/15
Ordua: 14:00 – 14:20
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Eva Maria Muñoz alkatearen lehendakaritzapean hasiera ematen zaio bilkurari zehaztutako orduan, Udaleko Idazkaria, Egoitz Jaio Gabiola, bertan izanik eta baita ondorengo zinegotziak ere:

Oihane Irastorza alzola
Iker Ballarin Zufiaurre
Oskar Zarrabeitia Asueta
Aroa Gonzalez Uriarte
Julio Cesar Cuesta Cuesta
Bakirtze Miota Sagastagoia

Alkateak bilerari hasiera ematen dio gai ordena jarraituz:

1.- Aurreko aktak irakurri, eta hala badagokie, onartzea.

Alkateak hartu du hitza eta galdetu du ea kideren batek egin nahi ote duen aurreko aktari buruzko iruzkinik.

Inork ez duenez ezer esateko akta onartutzat eman da.

2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen berri ematea, 191 (2017) – 20 (2018)

Alkatek Alkatetza Dekretuen zerrendaren berri eman du: 191-20 zenbakira. Udalbatzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira

3.- Julio Cesar Cuesta Zinegotziak karguari uko egitea.

Azaltzen da Julio Cesarrek bere baja aurkeztu duela eta plenotik pasatu behar dela eta hurrengo Jabier Retegui izango dela, hurrengo plenora agertuko dena. Idazkariak esplikatzen du Junta Electoral Central-era bidaliko dituela bere kredenzialak emateko. Kredenzial horiek jasotzen direnean, Retegui hurrengo plenora etorriko da. Denak ados agertzen dira aho batez.

4.- Izurtzako udaleko Euskararen Plan Estrategikoaren onarpena.

Alkateak adierazten du UEMAK plan estrategikoa bidali duela Izurtzako Udalerako, eta plenoan botatu behar dela. Baina Oskarrek korreoa bidali du zerbait botatu behar bada, lenehago komisiotik pasatu behar dela. Esplikatzen du nola korreoa bidali zion idazkariari eta idazkariak esan ziola, alkateak esan ziola uemako teknikariak hainbat biderrez saiatu zela bilera bat egiten baina ordutegiek ez zutela bat egiten. Alkateak esplikatzen du nola korreoa bidali zuen UEMAKoak ea posible izango ahal zen goizean bilera bat egitea, baina jendeak nahiago zuen arratsaldean... UEMAKoak esan zuten goizean izan behar zuela baina. Oskarrek dio ez daukala



arazorik datorren astean arratsalde batean plan hau lantzeko. Gelditzen dira egingo dutela batzordea hau lantzeko.

Loreak eta lkerrek diote hurrengo astean daudela pentsauta egitea batzordeak, hirigintza, kultura eta ogasuna.
Denak ados

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate andrearen oniritziarekin.

Alkatea

Idazkaria

Eva Maria Muñoz Irasuegi

Leire Ucin Soraluze